

Usurbilgo Sagardo Eguna, tradizioaren xarma

Aurtengo jaia datorren igandean ospatuko da

Usurbilgo Sagardo Eguna hamaika sagardoza-leren egutegian gorritz jarri beharreko hitzordua da, jaiak ez baititu alperrik beteko 22 urte aurten. Maiatzaren 18an izango da festa, goizeko 11.00etan hasita. Egitarauak tradizioaren xarma dauka berekin, urtetik urtera asko aldatu ez arren, urtero bete beharreko hitzorduak daukan enkantu berezi hori.

Badator Usurbilgo Sagardo Eguna, hogeita bigarren urtean. Maiatzaren 18an Usurbilgo dema-plaza eta pilotaleku inguruak sagardotegi erraldoia marraztuko dute beste urte batez, sagardozaileen eta festazaleen gozamenerako. Sagardotegi erraldoi horretan 45 bat sagardotegitako salda izango da eta herriko ehun bat gaztek jardungo dute sagardoa botatzen.

Egitaraua errepasatzen hasita, aurreko urtetakoen paretsu dator. Eta horixe da, hain juxtu, Usurbilgo Sagardo Egunaren xarma nagusia, Usurbila gerturatzaren diren milaka sagardozaileek horixe nahi baitute, betikoa, urterokoa. Behintzat hori nahikoa dute urteroko hitzorduari hutsik ez egiteko.

Goizeko 11.00etan irrintzilariek eta dantzariak irekiko dute Sagardo Egunaren 22. edizioa, Usurbilgo pilotalekuan izango den oholza gainean. Urtero sagardoaren alde lanean jardundakoren bat omentzen du Usur-

Euskaldunon Egunkaria gogoan

Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak urtero erakusketak bat prestatu ohi du, trago eta trago arteko paseoa begiak ere gozatzeko. Aurtengo erakusketak Euskaldunon Egunkaria izango du gogoan eta, batez ere, sagardoaren kulturaren alde egunkari honek egindako lana eskertu eta omenduko du.

Urtero, Usurbilgo Sagardo Egunaren bezperetan Euskaldunon Egunkariak sagardoaren inguruko gehigarria argitaratzen zuen. Hala, aurtengo erakusketak gehigarri horiek guztiak bilduko ditu.

Sagardozaileek egutegian gorritz margotu beharreko hitzordua hauxe da, beraz: Usurbilen, datorren maiatzaren 18an, igandea. ■



Jori URBE | ARGAZKI PRESS

Aurten hogeita bigarren aldiz ospatuko da Usurbilgo Sagardo Eguna.

bilgo Sagardo Egunak eta horixe bera izaten da lehenengo botila irekitzeko ardura duena. Bada, azkeneko momentura arte sekretu samarra izango da aurtengo omenduaren izena.

Sagardoa botatzen hasteko baimena emanda jarriko dira botatzaileak martxan eta goiz guztian barna lan horretantxe aritzeko.

Sagardo-botatzaileen lehiaketa ere izango da, urtero egiten den legez. Sagardoa bota-

tzen abilena, txukunena, dotoreena... aukeratuko du epaimahaiak 12.00etatik aurrera hasiko den lehiaketan. Eta sagardoa edanda mokaduren bat egitea beharrezkoa izaten denez, ez dira pintxoak faltako.

Etxe txikieneztat edo sagardoa gustuko ez duteneztat izango da edateko gozirik, muztioa egingo baitute goiz guztian Sagardo Egunaren Lagunak elkarteko kideek, jaia antolatzen dutenek. Sagardoa nola egiten

den bertatik bertara ikusteko aukera ere izango da.

Horrez gain, trikiti doinuek alaituko dituzte bazterrak, goiz nahiz arratsalde. Goiz parteko jaia 14.30ak aldean amaituko da eta 15.00etan sagardo-botatzaileen bazkaria izango da Atxegaldeko Mahaspildegia elkartean.

Arratsalde partekoa Tapia eta Leturiak girotuko dute 18.00etatik aurrera. ■

Amagoia MUJKA

